GAIA: GAMARRAKO PARKEKO INSTALAZIOETAN GASTROFURGOEKIN ESPASIO PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENA EMATEKO LIZITAZIOAREN OINARRIAK.

I. TITULUA. BAIMENAREN BALDINTZAK

1.-XEDEA.-

Oinarri hauen xedea da Gamarrako parkean 2026ko eta 2027ko udako kanpainen foodtruck edo gastrofurgoen bitartez bi postu instalatzeko bide publikoa okupatzeko baimenak esleitzeko prozedura eta baldintzak arautzea.

Baimen honen bidez, udal-igerilekuen erabiltzaileei janarien, alkoholik gabeko edarien eta izozkien zerbitzua eskaini nahi zaie, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua (letran aurreikusitako kirola eta kirol-instalazioak sustatzeko eta aisialdia betetzeko udalerriri esleitutako eskumenetan oinarrituta).

2.- BAIMENAREN IZAERA JURIDIKOA

2026ko udako denboraldia dela eta, jabari publikoko lursailetan foodtruck edo gastrofurgo bidezko salmenta-puntua instalatzeak jabari publikoko ondasunen erabilera erkide berezi normalaren izaera juridikoa du, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 75.1b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Beraz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea ez da aplikatu behar (lege horren bidez, 2014/23/EB eta 2015/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Hala ere, **ordezko gisa aplikatuko da**, arau horren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hautaketa-prozedura lehia askearen araubidean egingo da, aldezturik lizitazioa eginda, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78. eta 80. artikuluekin eta Toki Erakundeen Ondareari buruzko azaroaren 2ko 33/2003 Legearen 93. artikuluekin bat etorritik.

Jabari publikoko espazioetan garatzen den merkataritza-jarduerari dagokionez, udal-lurraldean kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantza aplikatuko da. Egungo ordenantza 2016ko azaroaren 4ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen (2016ko abenduaren 21eko ALHAO, 143. zk.), sektorea arautzen duen araudi berrira egokitze eta, batez ere, eguneratzeko eta kalez kaleko salmenta-eredu berrietara egokitze, hala nola janaria ibilgailuetatik saltzea.



Esleipendunak, eskabidea aurkezteko unean, oinarri hauetako klausulak eta eragiten dieten gainerako xedapenak osorik onartzen dituela ulertuko da.

Kontratuaren ardura duen sailak interpretatu eta ebatziko ditu baimenak emateko prozedurari buruz sor daitezkeen zalantzak.

Egin beharreko jabari publikoko baimenean ematen diren egintzekin lotuta sor daitezkeen auzigaien aurka errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

3.- BAIMENAREN IRAUPENA ETA KOKAPENA

3.1 Iraupena

Baimenak bi urteko iraupena izango du eta urte bakoitza udako kanpainaren datekin bat etorriko da, betiere maiatzaren 20a eta irailaren 15aren epearen barruan izanda.

Urte bakoitzerako, udako kanpainak beti 108 egun izango ditu, aurreikusitako datak hauek direla:

- 2026ko maiatzaren 22tik irailaren 6ra.
- 2027ko maiatzaren 28tik irailaren 12ra.

Udako kanpaina bakoitzean, guztira diren 108 egunetatik, **gutxienez 70 eguneko jarduera** minimoa ezartzen da, eta horietan hurrengo puntuan adierazten den gutxieneko ordutegia bete beharko da.

Era berean, baimena luzatzeko aukera badago, bi alderdiak ados jarrita, gehienez ere **beste 2 urtez**, 2028. eta 2029. urteetarako.

3.2 Ordutegia

Baimena duen pertsonak edo erakundeak udako denboraldian zerbitzua modu jarraituan emateko konpromisoa hartuko du. Nolanahi ere, instalazioa irekita dagoen ordutegian emango da zerbitzua, hau da, 08:00etatik 22:00etara, eta nahitaezkoa izango da, gutxienez, 11:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegia betetzea.

Eguraldi txarraren edo ezinbesteko beste arrazoi batzuen kasuan, irekitzeko gutxieneko ordutegia puntu honetan ezarritakoa baino laburragoa izan daiteke, Kirol Zerbitzuari jakinarazi ondoren, eta hark baimenduko du azken aukera hori.

3.3 Kokapena

Bi (2) puntu baimenduko dira kalez kaleko salmenta-postua foodtruck edo gastrofurgu bidez instalatzeko, **IV. eranskinean** zehazten diren kokapenetan:

- A eremua: familia-igerilekuaren eta errugbi-zelaiaren arteko zabalgunea.



- B eremua: igerilekuen eta solariumaren ingurunea (botikin-postutik hurbil)

Kirol Zerbitzuak beste kokapen batzuk ezarri ahal izango ditu, instalazioen arabera. Nolanahi ere, jende kopuru handieneko eremuetatik hurbil egongo dira.

Salmenta-puntuaz gain, Kirol Zerbitzuak baimena eman ahal izango du mahaiak eta aulkiak jartzeko foodtruck-etik gertu, esleipendunak alde zuzenetik eskatuta. Kirol Zerbitzuak zehaztuko du non eta zenbat mahai eta aulki baimenduko diren.

Interesdunek instalazioa bisitatu ahal izango dute, aurreikusitako espazioa eta kokalekuak ezagutzeko, bai eta instalazioak ere, oro har. Hala ere, bisita hori ez da nahitaezko baldintza izango prozeduran parte hartzeko.

4.- INSTALAZIOAK ERABILTZeko SALMENTA PUNTUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Saldu egingo dira elikagaien produktu eraldatuak eta alkoholik gabeko edariak, instalazioan izozkiak saltzea barne.
- Saltokiko ibilgailuak Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuak baimendutako lekuetan jarriko dira.
- Salmenta ibilgailuetatik bertatik egingo da, betiere udalaren alde zuzenetik aurreko baimenarekin.
- Ibilgailuek merkaturatzen diren produktuei aplikatu beharreko erregelamendu higieniko-sanitarioetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- Instalazioak, besteak beste, kalitatea eta funtzionaltasuna izan beharko ditu, eta higienari dagokionez indarrean dauden osasun-arauak eta aplikatu beharreko industria-araudia (makinak, instalazio elektrikoa, etab.) bete beharko ditu.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuak ez du instalaziorik baimenduko, esleipenaren unean adierazitako neurriak zehaztugabeak badira.
- Salmentarako erabiliko den ibilgailuaren gehieneko neurriak ezin izango dira 8 metro luze eta 2,5 metro zabal baino handiagoak izan, ibilgailuaren barruko edozein elementu finko barne.
- Plegu honetan aurreikusitako postuak bakarrik instalatu eta bertan zehaztutako jarduera garatu ahal izango da. Debeztatuta dago beste postu batzuk instalatzea, bestelako jarduerak egitea edo alde zuzenetik baimendu ez den edozein elementu jartzea.
- Zoladuran ez da inolako ainguraketarik erabiliko, eta behar bezala babestuko da.
- Toki ikusgarri batean jarri beharko dira udal-baimena eta prezio irakurgarrien zerrenda, horiek eskatu beharrik gabe.
- Erabat debeztatuta dago edozein motatako musika- edo megafonia-ekipoak instalatzea.
- Behar diren hornidurak, hala nola argia eta ura, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuak emango ditu. Kirol Zerbitzuak puntu hauetako hartuneak erraztuko ditu: hartune elektrikoa (32A potentzia), ur hotzaren hartunea eta hustubidea. Hargune horietatik salmenta-posturainoko konexioak adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta babestuta egon beharko dute segurtasun-neurriak bermatzeko.



5.- TASA / KANONA

Foodtruck delakoak instalatzeko baimenaren adjudikaziodunak espazioa okupatzeagatiko tasa bat ordaindu beharko dio Gasteizko Udalari. Tasa hori erabilera publikoko lursailetan kokatutako postu, barraka, salmenta-etxola, ikuskizun edo atrakzioengatiko tasak arautzen dituen ordenantzan ezarrita dago (2026ko Zerga Ordenantza, 7.1); zehazki, 3. epigrafean (urtaroko postuak) denda-ibilgailuentzat ezarrita dagoena. Kontzeptu hori urtero ordainduko da, epe bakoitzerako indarrean dagoen Ordenantzan ezarritako zenbatekoaren arabera. **2026ko udako denboraldiko egunekiko proportzionala izango den zenbatekoa 669,49€-koa izango da.**

Era berean, hasierako lizitazio-kanon bat ezartzen da, pertsona edo erakunde lizitatzailleek gorantz hobetu dezaketena beraien eskaintzan, **300 eurokoa** udako denboraldi oso bakoitzerako.

Kanona hileroko ordainduko da, Udalak egindako errekerimenduaren arabera.

6.- BAIMENAREN BALDINTZAK

Pertsona edo enpresa esleipendunak, bere jardueraren ondorioz aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeaz gain, oinarri hauetan jasotako estipulazioen arabera eman beharko du zerbitzua, bereziki honako betebeharrak hauei erreparatuz:

- Espazio publikoa okupatzeko baimena "foodtruck" delakoa instalatzeko behar-beharrezkoa den azalerarako baino ez da. Salmenta-postu bakoitzerako adierazitakoa baino azalera gehiago ezin izango da okupatu.
- Ematen den baimena oinarri hauetako klausula guzti-guztiak betetzearen baldintzapean geratzen da, eta ondorioz gabe geratuko da horietako edozein betetzen ez bada.
- Ezarritako kanona ordaintzea eta fidantza adierazitako epean gordailutzea. Era berean, espazioa okupatzeagatik aurreko puntuan adierazitako tasa ordaindu beharko du.
- Enpresa gisa aplikatzekoa zaion araudia betetzea, bereziki elikagaien salmentako ustiategi motaren ondorioz aplikatzekoa dena.
- Kartel edo publizitate orok Kirol Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du. Oro har, jendeari ematen zaion informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko da.
- Esleipendunak Kirol Zerbitzuari entregatuko dizkio produktuen zerrenda eta prezioak, udako denboraldia hasi baino lehen, oniritzia eman eta jarraipena egin diezaion.
- Arduradun bat izendatuko du, udalaren eta enpresaren arteko bitartekaria izango dena. Pertsona horrek telefono mugikorren zenbakia eta helbide elektronikoa izan beharko ditu komunikazioetarako.
- Genero-hornidurak instalazioaren eta erabiltzaileen ohiko jarduera ahalik eta gutxien oztopatzeko/eteteko moduan egingo dira. Oro har, lan horiek gehienez 11:00ak arte egingo dira.



- Esleipenduna arduratuko da bere jarduerak sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeaz eta erretiratzeaz.
- Kontratua amaitzean, okupatutako espazioa instalazioa egin zen unean zeuden baldintza berberetan utzi beharko du, eta bere jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzule izango da.

7. ESLEITZEKO PROZEDURA

.- Baimena lehia bidez esleituko da, prozedura irekiaren bidez, eta iragarkia Vitoria-Gasteizko Udaleko iragarki-taulan, web-orrian eta

Esleipena publizitate-, lehia-, gardentasun- eta objektibotasun-printzipioetara egokituko da, eta proposamen onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egokituko zaio esleipena, hau da, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera puntuaziorik altuena lortzen duenari.

Eskaintzak aurkezteko gaitasuna dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek, espainiarrek zein atzerritarrek (SPKLren 65. artikulua eta hurrengoak), baldin eta kontratatzeke debekurik ez badute (71. artikulua eta hurrengoak, APSLren 94. artikulua birbidaltzeagatik), hura modu osagarrian aplikatuta.

Esleipenaren ondoren, titularrak indarreko araudian aurreikusitako kontratatzeke debekua eragiten duen egoeran sartzen bada, baimena deuseztatu egingo da.

7.1 Proposamenen aurkezpena

.- Proposamenak aurrez aurre aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, helbide hauetako edozeinetan:

- ✚ Vitoria-Gasteizko Udaleko Bulego Teknikoetan (Teodoro Doublang Margolariaren kalea 25), **10 egun naturaleko epean**, iragarkia Vitoria-Gasteizko Udaleko iragarki-oholean, haren webgunean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- ✚ Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB).
- ✚ Hala ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako edozein modutan aurkez daitezke eskabideak.

Eskabidea Udaleko Bulego Teknikoetara posta ziurtatu bidez bidaltzen den kasuetan, eskatzaileak egiaztatu beharko du bidalketa zein egunetan aurkeztu den posta-bulegoan, eta, horrez gain, Kirol Zerbitzuari eskabidearen berri eman beharko dio, posta elektronikoki bat bidaliz ccdd.01@vitoria-gasteiz.org edo mgil@vitoria-gasteiz.org helbidera, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Mezu horretan jasota geratu beharko da mezuaren harrera, datak eta komunikazioen eduki osoa, bai eta bidaltzailearen eta hartzailearen identifikazio fidagarria ere. Bestela, eskabidea ezetsi ahal izango da.



Esleipen-prozeduraren ondoriozko sailkapen-hurrenkerak zehaztuko du erabilgarri dauden kokalekuen aukeraketa-ordena. Lehen postua lortzen duen erakunde lizitatuak lehentasunez aukeratu ahal izango du baimendutako bi salmenta-puntuetakoa bat, eta bestea bigarren postuan sailkatutako erakundearentzat izango da.

Lizitatuak bakarra aurkezten bada, edo esleipen-prozesuaren ondoren kokalekuetako bat hutsik geratzen bada, Udalaren eta esleipendunaren arteko aurretiazko adostasunaren bidez, baimena bi salmenta-puntuetara zabaltzea baimendu ahal izango da, ezarriko diren baldintzetan eta betiere interes publikoarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bateragarria bada.

.- Enpresa lizitatuak gutun-azal bat aurkeztuko dute, kanpoaldean eskabide-orrria (I. eranskineko eskabide-eredua) duena, eta bertan enpresa lizitatuak izena eta datuak jasoko dira (posta-helbidea, telefonoa eta posta elektronikoko helbidea).

Gutun-azal horren barruan, aldi berean, itxitako bi gutun-azal egongo dira, A gutun-azala eta B gutun-azala izendatuak.

A GUTUN-AZALA .- PROPOSAMEN TEKNIKOA, eta haren kanpoaldean enpresa lizitatuak izena eta "A gutun-azala" agertuko dira. Gutun-azal honek honako dokumentazioa jasoko du:

1.- Lizitatuak enpresa, enpresa-elkarte edo enpresa-elkartze gisa identifikatzen duen agiria, eta bertan honako hauek jasoko dira:

- Pertsona fisikoak badira:

Titularraren eta titularkidearen NANaren fotokopia edo, Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, indarreko atzerriartetasun-araudiak eskatzen dituen bizileku- eta lan-baimenen fotokopia.

- Pertsona juridikoak badira:

Eraketa-eskirituraren fotokopia.

Eskatzailearen ordezkartza-ahalordeen egiaztatzea eta Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

2.- Erantzukizunpeko adierazpena, lizitazioan parte hartzeko baldintzak betetzen dira adierazten duena (**II. Eranskina**).

3.- Jarduteko Osasun Baimena. Hala badagokio, gastrofurgu gisa homologatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

4.- Elikagai-instalazio ez iraunkorren eta jarduera gastronomikoen eskabiderako erantzukizunpeko adierazpena (**V-A eta V-B Eranskina**).

5.- Zirkulazio-baimena eta IATren kopia.

6.- Ibilgailuaren argzkiak.

7.- Proposamen teknikoak, gutxienez informazio hau jasoko duena:

- **Negozio planteamenduaren deskribapen orokorra.**
- **Eskaintza gastronomikoa eta produktuen aniztasuna.**



- **Foodtruck edo gastrofurgoaren aurkezpena eta ezaugarriak.**
- **Bezeroarentzako arreta.**

B GUTUN-AZALA .- (FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKAGARRIAK DIREN IRIZPIDEEN PROPOSAMENA. III.ERANSKINA); kanpoaldean enpresa lizitatzaillearen izena eta “B gutun-azala” agertuko dira.

Gutun-azal honek eskaintza ekonomikoan jasotako eta baloratu beharreko irizpideei buruzko informazio guztia bilduko du. Argitasunez adierazi beharko da enpresa esleipendunak kanon gisa eskaintzen duen zenbatekoa; zenbateko hori **ezingo da inola ere izan 300 eurotik beherakoa denboraldi osoagatik**, hilez hil ordainduta. Baldintza hori betetzen ez duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira lizitaziotik.

7.2 Proposamenen irekiera:

.- Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, Kirol Zerbitzuko teknikari arduradunak gutun-azalak irekiko ditu, aurkeztutako proposamenak aztertzeko eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera **BALORAZIO-TXOSTENA** egiteko, gehienez **5 egun balioduneko epean**.

.- Eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu edo osatu gabe badago, organo kudeatzaileak eskatzaileari zuzentzeko eskatu ahal izango dio, 10 eguneko epean behar diren dokumentuak zuzendu edo aurkez ditzan. Halaber, adieraziko zaio hala egiten ez badu, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

7.3 Esleipen-proposamena:

.- BALORAZIO-TXOSTEN TEKNIKOAK egin ondoren, organo kudeatzaileak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu puntuazio handienetik txikienera, eta adieraziko ditu aurkeztutakoak, baztertutakoak eta onartutakoak, baita bakoitzak lortutako puntuazioa ere, oinarrietan ezarritako esleipen-irizpideen arabera. Ondoren, baimena emateko proposamena egingo du, kalitate-prezio erlaziorik onena eskaintzen duen proposamenaren alde, oinarri hauetan ezarritako esleipen-irizpideekin bat etorriz.

.- Berdinketa gertatuz gero, baimendun gisa proposatuko da irizpide ekonomikoan — hau da, eskaintako kanonean— puntuazio handiena lortu duen eskaintza. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebartziko da.

7.4 Esleipenerako irizpideak:

A GUTUN-AZALA. BALIO-JUDIZIOAREN MENDEKO IRIZPIDEAK. Atal hau gehienez 30 punturekin baloratuko da.

Entitate lizitatzailleek negozio-planteamenduari buruzko proiektu bat aurkeztu beharko dute, zerbitzua nola emango duten modu zehatzean deskribatuz.



Proiektuak, gutxienez, ondoko atalak jaso beharko ditu, eta horiek izango dira balorazioaren xede. Baloratuko dira eskaintzaren kalitatea, zehaztasuna, konkretutasun-maila eta instalazioetara zein erabiltzaileen tipologiara egokitzea:

1. **Negozio-planteamenduaren deskribapen orokorra (gehienez 10 puntu)**

Proposatutako negozio-eredua zehaztuko da, aurreikusitako ordutegiak, eguneroko funtzionamenduaren antolaketa eta zerbitzuaren funtzionamendu orokorra ulertzeko beharrezkoak diren gainerako alderdi guztiak barne.

2. **Eskaintza gastronomikoa eta produktuen aniztasuna (gehienez 10 puntu)**

Eskaintako produktu nagusiak zehaztuko dira: edari ez-alkoholikoak, elikagaiak eta izozkiak, haien aniztasuna, kalitatea eta instalazioari nahiz udako denboraldiari egokitzapena adieraziz. Halaber, hala badagokio, produktu osasungarrien eskaintza, alergiadunentzako edo begetarianoentzako aukerak, edo zerbitzuari balioa eman diezaioketen bestelako proposamen bereizgarriak azalduko dira.

3. **Foodtruck edo gastrofurguaren aurkezpena eta ezaugarriak (gehienez 5 puntu)**

Ibilgailuaren ezaugarri tekniko eta estetikoak, ekipamendua eta zerbitzua emateko garrantzitsuak diren gainerako elementuak deskribatuko dira. Baloratuko dira funtzionaltasuna, originaltasuna, estetika eta instalazioaren espazioarekin eta ingurunearekin integrazioa.

4. **Bezeroarentzako arreta (gehienez 5 puntu)**

Aurreikusitako bezeroarentzako arreta-eredua azalduko da, zerbitzuaren oinarritzko antolaketa eta erabiltzaileekiko tratamendu-irizpideak barne. Baloratuko dira profesionaltasuna, irisgarritasuna, arreta elebiduna eskaintzeko aukera, tratu egokia eta antzeko alderdiak.

B GUTUN-AZALA. FORMULA MATEMATIKOAREN MENPEKO IRIZPIDEAK. Atal hau gehienez 20 punturekin baloratuko da.

1. Kanon minimoaren hobekuntza. Atal hau **gehienez 20 punturekin** baloratuko da.

KANON MINIMOAREN HOBEEKUNTZA: Lizitatzailleak konprometitzen den zenbateko ekonomikoari buruzko proposamena egin beharko du. Eskaintza hori hasierako kanon minimoari (300 €) gehituko zaio. Kasu guztietan, adierazitako zenbakia (300 €) eskaintzen diren kopuruetan oinarri izango da; horren azpiko eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

- Eskaintzak honako formula erabiliz baloratuko dira:



ESKAINTZAREN PUNTUAZIOA = Puntuazio maximoa x (Eskaintza hobekuntza / Eskaintza hobekuntza maximoa)

Non:

Eskaintzaren puntuazioa = Lortutako puntuazioa

Puntuazio maximoa = Lortzeko puntuazio maximoa (20pt)

Eskaintza hobekuntza = Baloratu beharreko pertsona edo enpresaren gutxieneko kanonaren hobekuntza

Eskaintza hobekuntza maximoa = Gutxieneko kanonaren hobekuntzarik onena.

7.5 Baimendutako pertsona edo erakundeek esleipen proposamenaren ondoren aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Esleipendun diren pertsonen zerrenda 010 Herritarren Informazio Zerbitzuaren bidez (945 161100) kontsulta daiteke eta, era berean, Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org), non esleipendunen zerrenda argitaratuko den.

Esleipenduna izanez gero, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da Vitoria-Gasteizko Udalaren Edozein Herritarren Arreta Bulegotan, esleipendunen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, **10 egun balioduneko epean**:

1.- Fidantza eta tasak: Tasa eta fidantzaren ordainketaren agiria aurkeztu beharko da.

2003ko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena esleipendunari **500 €-ko fidantza eskatuko zaio**, espazio publikoa erabiltzeagatik eta sor litezkeen kalteen konponketa edo ordainketa bermatzeko. Ordainketaren agiria aurkeztu behar da.

Halaber, foodtruck-ak instalatzeko baimena esleipendunari Vitoria-Gasteizko Udalari espazioaren okupazioagatik **669,49 €-ko tasa** ordaindu beharko zaio.

2.- Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru-poliza: Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia entregatuko da, bai eta primaren ordainketa egiaztatzen duen agiria ere.

Erakundeak nahitaez kontratatu beharko ditu bere kargura baimen honek irauten duten bitartean honako aseguru hauek:

- Aseguru bat, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera hirugarrenei eragindako eta haien instalazioen, garatutako jardueraren eta haien kargura kontratatutako langileen ondoriozko kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila estaltzen duena, martxoaren 25eko 44/2014 DEKRETUAK, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituenak, ezarritako zenbatekoan.



3.- JEZn alta egindakoaren ziurtagiria edo JEZn alta eta baja ziurtagiria dagokion epigafrean.

4.- Elikadura Higieneko prestakuntzaren ziurtagiria saltzaile diren pertsonentzat.

Epean ezarritako dokumentazio guztia aurkeztu ezean, esleipendunak izanik ere, eskaera EZETSIA izango dela ulertuko da.

7.6 Formalizazioa

Baimena administrazio-agiri baten bidez osatuko da, esleipena Jakinarazpen-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, **15 egun balioduneko epean.**

Esleitutako gastrofurgoko bakoitzerako baimen bereizi bat egingo da, eta esleipendunen titular edo kotitularrei entregatuko zaie, NANaren kopia aurkeztu ondoren; Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, indarreko atzerriartasun-araudiak eskatzen dituen bizileku- eta lan-baimena aurkeztu beharko dute.

Halaber, baimena jasotzeko hirugarren bat autoriza daiteke, idatzizko agiri baten bidez, non bai delegatzailearen bai ordezkatuaren NAN zenbakiak eta sinadurak jasoko diren.

8.- USTIAPENA, ALOKAIRUA ETA TRASPASOA

Berariaz debekatuta dago baldintza-agiri honen xede diren jabari publikoko ondasunen erabilera erkide bereziko baimena lagatzea, eskualdatzea edo errentan ematea.

9. ERANTZUKIZUN ZIBILA

- Esleipendunak bere gain hartzen du sor daitekeen erantzukizun zibil osoa, eta Vitoria-Gasteizko Udala salbuetsi egiten du honako hau betetzetik:
 1. Jabari azalera eta uneoro dauden instalazioak mantentzea eta kontserbatzea.
 2. Baimendunak, bere arrisku eta erabakimenpean, eskaintzen ditu edari eta elikagaiak, eta bere gain hartzen ditu kalteak eta galerak, zuzenekoak edo zeharkakoak, jardueragatik erantzukizun zibila bere gain hartuz, baita jarduerak udal ondasun eta eskubideetan eragindako erantzukizuna ere, eta Vitoria-Gasteizko Udala erantzukizun guztietatik salbuestuz.
- Zigorra ezartzeak ez du baztertzen pertsona edo erakunde baimenduaren ez-betetzeek eragindako kalte galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubide izatea.



10.- ZIGOR-ERREGIMENA

Udal-agintariek, zaintza- eta kontrol-eginkizunak betez, ebazpen honetako xedapenak, Kaleko Salmentari buruzko Udal Ordenantzan ezarritakoak eta jarduerari eta salmenta-produktuei aplikatu beharreko gainerako lege-arauak behar bezala betetzen direla bermatuko dute.

Araudi hori betetzen ez bada, ofizioz izapidetuko da, organo eskudunak eskatuta, nahitaezko zehapen-espedita, Kalez kaleko salmentako indarreko udal-ordenantzaren VI. kapituluan ezarritakoaren arabera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

Salmenta Ibiltariaren Udal Ordenantzaren 34. artikuluan ezarritako arau-hausteez gain, honako hauek ere hartuko dira kontuan:

Arau-hauste arinak izango dira:

- Ordubeteen ordutegia ez betetzea.
- Prezioen zerrenda gaizki erakustea edo ez erakustea.
- Karteletan, produktu eta prezioen zerrendetan, menuan edo antzekoetan arreta elebiduna ez ematea.
- Hondakinak botatzeko ontzirik ez izatea.

Arau-hauste larrian izango dira:

- Ordutegia ordubetetik gora ez betetzea.
- Instalazioaren garbiketa falta.
- Aplikatzekoak diren udal-arauak ez betetzea.
- Udalak emandako arauak eta jarraibideak ez betetzea.

Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Ezarritako prezioa lehen adierazitako baldintza eta epeetan ez ordaintzea, esleipendunak behar bezala egiaztatutako kausa justifikatuetan izan ezik.
- Baimendu gabeko produktuak saltzea.
- Aseguru-polizen ordainagiriak ez ordaintzea.
- Kirol Zerbitzuaren eta Osasun Zerbitzuaren ikuskapenen aurka egitea edo horiek oztopatzea.
- Zerbitzuaren edo instalazioaren erabiltzaileekiko errespetu faltak, hitzekoak zein ekintzakoak.
- Baimenik gabe edozein motatako obrak edo espazioaren egiturazko aldaketak egitea.
- Instalazioak utzitako egoeratik okerago itzultzea.

Egindako faltak horrela zigortuko dira:

- Falta arinak: 300€-ra arteko isuna.
- Falta larriak: 301€-tik 600€-ra bitarteko isuna eta/edo salmenta baimena hilabetez etetea gehienez.
- Falta oso larriak: 601€-tik 1.200€-ra bitarteko isuna eta/edo emandako baimena galtzea.



11. BAIMENA BUKATZEA.

Baimenak hurrengo arrazoi hauengatik deuseztuko dira:

- 1.- Ezarritako epea amaitzea.
- 2.- Titularrak borondatez uko egitea edo hiltzea.
- 3.- Baimena emateko funtsezko baldintzaren bat betetzeari uztea.
- 4.- Ezeztapena: **Nolanahi ere, udalak, BERE KABUZ, EDOZEIN UNETAN eta kalte-ordainerako eskubiderik gabe, baimena iraungi baino lehen ondoriorik gabe utzi ahal izango du, baldin eta jabari publikoan kalteak eragin badira, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo interes publikoko bat-bateko inguruabarrek justifikatzen badute.**
- 5.- Baimena galtzea dakarren arau-hausteen zigorra.



I. Eranskina – ESKAERA ETA IDENTIFIKAZIORAKO DATUAK

KONTRATISTAREN DATUAK, PERTSONA FISIKOA BADA. BANAKAKO ENPRESA

Jabearen izen-abizenak eta NAN zenbakia:

Helbidea:

Telefonoa(k):

Helbide elektronikoa

Faxa:

KONTRATISTAREN DATUAK, PERTSONA JURIDIKOA BADA

Izena eta IFZ:

Sozietate mota:

Ordez kariaren izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Telefonoa(k):

Helbide elektronikoa:

Faxa:

Adierazi du interesa duela Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuak **Gamarrako Parkeko instalazioetan "gastrofurgoein" espazio publikoa okupatzeko** deitu duen deialdian parte hartzeko, eta ados dagoela lizitazioa arautzen duten oinarrietan ezarritako klausula guztiekin.

Horretarako, eskabide honekin batera, honako agiri hauek aurkezten ditu:

• GUTUN AZALA, BARRUAN HONAKO HAUEK DITUELA:

- A GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN TEKNIKOA
- B GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Data:

Sinadura:



II. Eranskina – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

.....jauna/andrea(k), NAN/AIZ
izanda, bere izenean edo enpresaren ordezkari gisa
(IFK:.....), den aldetik, 2026ko eta 2027ko udan
Gamarrako parkeko instalazioetan espazio publikoa “foodtruck” batekin okupatzeko
baimenaren lizitazioan parte hartzeko.

ADIERAZTEN DU, bere erantzukizunpean:

1º.- Pertsona edo erakundea, haren administratzaileak eta legezko ordezkariak, bai eta sinatzailea ere, ez daudela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez du zerga-arloko zorrik ordainketa-aldi exekutiboan Vitoria-Gasteizko Udalarekin.

2º.- Deialdi hau arautzen duten oinarriak ezagututa, horiek betetzeko eta zerbitzua zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen du, betiere oinarri horiei, proposamen teknikoari eta aurkezten den eskaintza ekonomikoari lotuta.

3º.- Jakinarazpenetarako, harremanetarako pertsona eta helbide elektroniko hauek izendatzen ditu:

- Harremanetarako pertsona:
- Telefonoa:
- Helbide elektronikoa:

Lekua, data eta lizitatzailaren sinadura.



III. Eranskina – PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jauna/andrea(k)
helbidea:....., kalea:.....,
NAN:....., bere izenean edo..... ordezkatuz
helbidea:....., kalea:.....,
tel.:..... eta IFZ:....., Gamarrako parkeko instalazioetan
gastrofurgoeekin espazio publikoa okupatzeko baimena emateko lizitaziorako oinarrien berri izan
ondoren, konpromisoa hartu du zerbitzua emateko, oinarri horietan aurreikusitako preskripzioen
eta epeen arabera eta euroko kanonarekin (baimenaren urte bakoitzeko).

Espedientea:

Titulua: GAMARRAKO PARKEKO INSTALAZIOETAN "GASTROFURGOEKIN" ESPAZIO
PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENA EMATEKO LIZIAZIOAREN OINARRIAK.

**HITZ EMATEN DU ZERBITZUA OINARRIETAN EZARRITAKO PRESKRIPZIOEN ETA
EPEEN ARABERA EMANGO DUELA, eta kanon bat jarriko duela, baimenaren iraupenari
dagokiona:**

- **KANONA GUZTIRA URTE BAKOITZERAKO€**

(Kopuruak letraz eta zenbakiz adierazi beharko dira. **Kopurua letraz eta zenbakiz bat ez
badator, letraz adierazitakoa baliozkoa izango da.**)



Gasteizen, 2026(e)ko aren(a).



IV. Eranskina – INSTALAZIOEN PLANOA

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.or

GAMARRAKO PARKEA
-
PARQUE DE GAMARRA



V-A. Eranskina – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ELIKAGAI-INSTALAZIO EZ- IRAUNKORRAK ETA JARDUERA GASTRONOMIKOAK ESKATZEKO

V-A ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ELIKAGAI-INSTALAZIO EZ IRAUNKORRAK ETA JARDUERA GASTRONOMIKOAK ESKATZEKO

TITULARRAREN DATUAK / DATOS DEL TITULAR			
NAN/AIZ/IFK		IZEN-ABIZENAK / SOZIJETATEAREN IZENA	
HELBIDEA (kalea, etorbidea...)		Zk°	SOLAIRUA
			LETRA
UDALERRIA	PROBINTZIA	TELEFONOA	E-MAILA
ESTABLEZIMENDUAREN IZENA		OSASUN ERREGISTROKO ZK ⁽¹⁾	

(1) Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra (RGSEAA) edo dagokion autonomia-erkidegoko erregistrokoa (Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, REACAV: Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroa)..

X BATEZ MARKATU IZATEKOTAN / MARCAR CON X SI SE DISPONE	
<input type="checkbox"/>	Baldintza higienikoak betetzen direla zaintzeko eta kontrolatzeko gaitasuna duen enpresa baten zerbitzu-sanitarioak
<input type="checkbox"/>	Prestakuntza-plana edo, hala badagokio, elikagaien manipulazioaren arloko prestakuntza jaso izanaren justifikazioa.
<input type="checkbox"/>	Alergenoen plana edo alergenok identifikatzeko dokumentua.
<input type="checkbox"/>	AKPKAn oinarritutako autokontrol-sistema edo autokontrolerako plan orokorra (sinplifikatua) edo jardunbide egokien gida..
<input type="checkbox"/>	Erreklamazio-orriak egongo dira eskatzen dituzten bezeroen eskura.
<input type="checkbox"/>	

SALDUKO DIREN ELIKAGAIK (X BATEZ MARKATU IZATEKOTAN)	
<input type="checkbox"/>	Norberak egindako elikagaien salmenta.
<input type="checkbox"/>	Berezko elaboraziorik gabeko elikagaien salmenta.
<input type="checkbox"/>	Ontziratuak:
<input type="checkbox"/>	Ontziratutako gabeak:
<input type="checkbox"/>	Elikagaien deskribapen laburra.

INSTALAZIOEN ETA EKIPOEN DEKLARAZIOA (x batez markatu izanez gero edo deskribatu)	
<input type="checkbox"/>	Eguraldi txarretik babestutako instalazioak (toldoa...).
<input type="checkbox"/>	Erraz garbitu eta desinfektatzeko zorua.- Deskribatu
<input type="checkbox"/>	Lanerako azalera nahikoen dimentsioak.
<input type="checkbox"/>	Baxera eta tresneria garbitzeko neurri nahikoak dituen eremua.
<input type="checkbox"/>	Harraska manipulazio-eremuan, sare publikoari eta komuneko tresnei lotuta.
<input type="checkbox"/>	Hondakin-urak sare orokorrera konektatutako mahuka baten bidez husteko sistema.
<input type="checkbox"/>	Edateko uraren sistema txorrotarekin eta komuneko tresnekin.
<input type="checkbox"/>	Ur beroa harraskan/konketan.

	Behar adina hozte-instalazio. Deskribatu	
	Hozte-beira-arakak.	
	Termometroak hotz-ganbera guztietan.	
	Eskuzkoa ez den eragingailuko konketa.	
	Elikagaiak manipulatzeko eremu bereizia.	
	Biltegi independentea.	
X	Aldagelak	Kirol Zerbitzuak aldagelak eta armairuak jarriko ditu langileen eskura.
	Ontzi-garbigailua	
	Salgaien garraioa. Nola egin nahi den. Deskribatu	
	Ibigailua elikagaiak biltegitzeko eta kontserbatzeko erabiliko den. Deskribatu	
	Elikagaien jatorria egiaztatzen duten fakturak edo bestelako dokumentuak.	
	Zaborra egunero kendu behar da. Ontzi egokiak ditu, eta ez dago inola ere elikagaiekin kontaktuan..	

(2) Araudi aplikagarria:

852/2004 Erregelamendua, elikagaien higienari buruzkoa (III. eranskina).

Gasteizko udalerrian kalez kaleko salmenta arautzen duen udal-ordenantza (2016ko abenduaren 21eko ALHAO). Elikagaiaren eta egin beharreko jardueraren arabera aplikatu beharreko elikadura-legeria.

1021/2022 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, Txikizkako Merkataritzako Establezimenduetako Elikagaiei buruzkoa

..... andreak/jaunak (NAN:.....), idazki honetan adierazitako datuak dituen establezimenduaren ordezkari gisa, **BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU** indarrean dagoen elikagaien segurtasunari buruzko legerian ezarritako higiene- eta osasun-baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela (2), higiene-jardunbide egokietan oinarritutako autokontrol-programa bat egiteko konpromisoa hartzen duela, eta V-B eranskinean jasotako baldintza guztiak betetzen dituela.

.....en, 2026ko ren(a)

Sinadura

V –B. Eranskina

FOODTRUCKENTZAKO ETA KALEZ KALEKO SALMENTARAKO EGOKITUTAKO IBILGAILUENTZAKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

Betekizun horiek betetzeak elikagaien segurtasuna eta osasun publikoaren babesa bermatzen ditu, jarduera arduratsua sustatuz eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

1.-DOKUMENTAZIOA ETA ERREGISTROA

Nahitaezkoa da enpresa inskribatuta egotea garatzen duen elikagai-jarduerari dagokion erregistroan, araudiak eskatzen duen bezala:

Dagokion autonomia-erkidegoko elikagai-establezimenduen erregistroa

Horniketa-katean zehar elikagaien jatorria eta trazabilitatea bermatzen duen dokumentazioa izango du postuan.

2.- INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA

- Ibilgailuaren oinarria lurretik isolatuta egongo da, eta, nolana ere, erraztu egingo du garbiketa eta desinfekzioa.
- Ibilgailuaren egiturak material erresistenteak, aldagaitzak eta erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango ditu. Kontserbazio-egoera onean egongo da.
- Instalazioak behar bezala teilatuta egongo dira, eguraldi txarretik babestuta eta jendea elikagaiak biltegitratzeko edo manipulatzeko eremuetara sartzeara eragozten duten sistemekin.
- Argiztapen-sistemak babestuta egongo dira, hautsiz gero elikagaiak kutsatzeko arriskurik egon ez dadin.
- Jarduerari eta bolumenari egokitutako bitartekoak, instalazioak eta/edo ekipoak izango dira (hotz-ganberak, beira-arasa hoztaileak, babes-pantailak...), biltegitratzean, elaborazioan eta erakusketan elikagaien kontserbazioa eta babesa bermatzeko.
- Tresneria kanpoko kutsaduretatik babestuta egongo da.
- Material lauekin, porotsuak ez direnekin, korrosioarekiko erresistenteekin eta erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoekin lan egiteko gainazalak egongo dira, lan-bolumenaren arabera behar adina dimentsiotan.
- Erabiltzen diren tresnak erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira.
- Ur-hornidura edateko uraren udal-sarera konektatuta egingo da. Eta hondakin-urak husteko sistemak elikagaiak eta eremu garbiak kutsatzeko edozein arrisku saihestuko du, sare orokorrera konektatutako mahuka baten bidez. Udalak hornikuntza- eta hustubide-sarerako konexioa erraztuko du, eta ibilgailuaren konexioa arduradunaren kontura izango da.
- Eskuz eragiten ez den harraska-konketa bat egongo da.
- Ur beroa izango du.
- Zaborrontzi nahikoak izango dituzte, eta, ahal dela, eskuzkoa ez den aktuazio-tapa izango dute, hondakin solidoak ez metatzeko; izan ere, hondakin horiek beharrezko maiztasunarekin atera behar dira edukiontzi egokietan.
- Lan-bolumena ibilgailuaren biltegitratze-eremuetara eta manipulazio-azaleretara egokituko da.
- Elikagaiak manipulatzeko eta biltegitratzeko eremua erabat isolatuta egongo da gidatzeko espaziotik.

3.- GARBIKETA-BALDINTZAK ETA MANIPULATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Ahalik eta garbitasun handienaz garbituko dira instalazioak eta ekipamendua, salgaiak garraiatzeko ibilgailuak, edukiontzi eta kutxa berrerabilgarriak eta konketak eta ur-andelak barne.
- Manipulazio-eremuak eremu zikinetatik edo hondakineterako eremuetatik bereizita egongo dira.
- Manipulatuzaileek eskuak behar beste aldiz garbituko dituzte kutsadura gurutzatuak saihesteko.
- Manipulatuzaileek lanerako arropa egokia eta esklusiboa izango dute, une oro garbi egongo dena.
- Kasu guztietan, saihestu egingo da elikagai gordinen eta elaboratuen/kozinatuen arteko kontaktu zuzena.
- Erabilitako garbiketa- eta desinfekzio-produktuak elikadura-erabilerarako baimenduta egongo dira, eta elikagaietatik bereizita mantenduko dira.
- Egunero kontrolatu eta erregistratu dira elikagai-ganberetako tenperaturak.
- Elikagaiak ezin dira ibilgailutik kanpo biltegitratu eta manipulatu.
- Nolanahi ere, une oro errespetatuko dira araudian jasotako manipulazio-jardunbide egokiak.

4.- BABESTEKO ETA KONTSERBATZEKO BALDINTZAK

- Elikagai galkorrak kontserbazio-baldintza optimoetan mantenduko dira (0-8 °C arteko hoztea, -18°C izoztea eta 65°C berotzea) Kanpotik erraz ikusteko moduko termometroak izango dituzte.
- Janariak beira-arasekin, tapekin edo bilgarriekin babestuta egongo dira, kanpoko agenteekin kontakturik ez izateko (hautsa, intsektuak, etab.).
- Tenperatura erregulatua behar duten elikagaien manipulazioa giro-tenperaturarekiko esposizio-denborak minimizatzeko moduan egingo da.
- Ekidin egingo da eguzki-izpiak zuzenean elikagaien gainean jartzea.

5.- ETIKETAK, ALERGENOAK ETA TRAZABILITATEA

- Elikagaiak behar bezala etiketatuta egongo dira, eta elikadura-alergenoak identifikatzeko nahitaezko informazioa izango dute. Etiketarik ez duten artisauro-merkatuen kasuan, erraz ikusteko moduko toki batean zintzilikatuko da osasun-erregistroaren zenbakia.
- Jatorrizko ontzia salmentaren amaierara arte mantenduko da etiketarekin, betiere elikagaiaren jatorria identifikatuta gera dadin.
- Postuan bertan izango da elikagaien jatorria identifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa.

6.- FORMAZIOA

- Manipulatuzaileek elikagaiak manipulatzeko prestakuntza izango dute, garatu beharreko jarduerarako egokia.

7.- ERABILI ETA BOTATZEKO MATERIALAK

- Ontziak erabilera bakarrekoak, birziklagarriak edo konpostagarriak izango dira. Ez da beirazko ontzirik erabiltzea baimenduko.

8.- ALKOHOLA ETA TABAKOA

- Debebatuta dago alkohola eta tabakoa saltzea.

Nolanahi ere, indarrean dagoen elikagaien legerian ezarritako osasun-baldintzak beteko dira.